

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DULANTZIKO UDALA

Hiri hondakin solidoaren tratamendua, C4124BSH ibilgailua

Orain dela bi hilabete baino gehiago C4124BSH ibilgailua bide publikotik erretiratu zen eta oraindik ere udalaren biltegian gordeta dago, aginduzkoak diren gestioak eta jakinarazpenak egin arren haren jabeak ez baitira agertu hura jasotzera, aurrez ordainduta ibilgailua erretiratzeko zerbitzuaren eta udalaren biltegian egondako aldiaren tasak.

Bat etorri azaroaren 26ko 30/92 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak (1992ko azaroaren 27ko BOE), 59-4 eta 61. artikuluetan xedatutakoarekin, iragarki honen bitartez egiten da jakinarazpena, haren jabea den Manuel Cáceres jaunari Gasteizko Helsinki kaleko 6.ean, 5. solairuko C letran jakinarazten alferrik saiatu eta gero.

Jabea edo bere legezko ordezkaria udalaren bulegoetara azaldu beharko dira haren kargu egiteko, bere gordailu eta zaintzagatik ordaindu beharreko diru kopururik sortzen jarraitu ez dezan, eta orobat txatar moduan saltzea ekiditeko.

Jabearen asmoa bere ibilgailuari udal honen alde uko egitea baldin bada, udalaren bulegoetara etorri beharko du 15 eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aipatu den ibilgailua udalaren biltegian bi hilabete baino denbora luzeagoan gordeta egon denez, eta bat etorri apirilaren 21eko 11/1999 Legean xedatutakoarekin, ondoko hau ohartarazten zaie haren jabeei:

Hamabost egun igaroz gero, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aipatutako ibilgailua hiri hondakin solidoaren moduan tratatuko da.

Dulantzi, 2016ko irailaren 26a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA